

Hain zaude non-nahi,
hain zabiltza sarri
begioi ohareraze,
erdi ageri,
hain zaude non-nahi,
isilik bai, ta,
deitzaile.

(B. Gandiaga)

Amaitzeko...

Gure Aita errezatuz eta Andre Mariari abestuz amaitu daiteke otoitzaldia.

2014.eko azaroan

3. GIDOIA - AURREKOAREN OIHARTZUNA

Eleizbarrutiko bereizketaren helburua

Otoitz eta irekitasunezko giroan, antzeman daigun alkarregaz zelan **hitz egiten deuskun Jaungoikoak** bizi dogun garai honetan, zelan agertzera emoten jakun gizarteko eta Eleizako inguruabar honeetan eta **zelan erantzun deikeogun, hankak lurrean doguzala**, gure aukerak kontuan hartuta, bat egiteko dei horri.

Oharrak

- Aurtengo ibilbideari ahalik eta ondoen jarraitzeko, oso egokia da **batzar honen eta aurrekoaren artean tarte on bat izatea**. Behin eta barriro azpimarratu nahi dogu, **etxean prestatuta ekarri behar dirala erantzunak**, danak parte hartu ahal izan dagien.

- Gaurko honetan, aurreko batzarrean egindako azterketak bakoitzarengan sortarazten dituen **sentipenak, asmoak eta usteak alkarri esaten** ahaleginduko gara. Horregaitik, ezinbestekoa da **moderatzaileak aurrekoan landutakoa gogora ekartzea**.

- Eragin **negatiboa** (bildurrak, ezbaiak) zein **positiboa** (planak, asmoak) izan daiketen alderdiak gogoan hartu behar dira.

- Ekitaldiaren ibilbidea:

- Zuzendari edo moderatzaileak aurreko batzarraren sintesia aurkezten dau.

- *Evangelii gaudium* idazkiko atalen bat irakurri eta komentatu.

- Erantzunak alkarri esatea.

- Azalpenak.

- Otoitzaldia.

- Norbere sintesia.

- Ebaluaketa.

Goratarrea

On guztien Iturria,
Zuk daukazu ezarria
oinen pean harria,
ezpainetan irria.

On guztien Eguzkia,
Kristok zaitu zu jaikia
guregan biztuz ongia
eta kenduz gaizkia.

On guztien Itsasoa,
Zuregana kantuz doa
bihotz barnean leloa,
maitasunen geroa.

On guztien Gaina,
denok amets daukaguna,
Zu zaitugu, Zu, Jauna,
on guztiez hain ona.

S. Paulo apostoluak Erromatarrei

Hainbeste eragozpen eta oztipoen artean, apostoluak sinesmenaren indarra agertzen dau. Barri Ona zabaltzea da bere bokazioa.

Nork alenduko gaitu Kristok deuskun maitasunetik? Atsekabeak, larriak, erasoaldiak, goseak, jantzirik ezak, arriskuak, ezpatak? Liburu Santuak dinoanez: “Zugaitik egunero hiltzorian gaukez; hiltzeko ardiak lez erabiltzen gaitue”.

Baina guztiotan erraz ateratzen gara garaile, maite izan gaituanari esker. Ziur nago, ez herio eta ez bizi, ez aingeru eta ez goiko beste indar, ez oraingo eta ez geroko, ez inungo aginpide, ez ortziko eta ez lurrazpiko indar, ez beste izakik, ez gaituela alenduko Jainkoak Jesukristo gure Jaunarengan agertu deuskun maitasunetik.

JAUNAK ESANA

(Isilunea, Jaunak esana onartzeko eta gero, behar bada, komentatzeko)

garrantzia. Basamortuan aurkitzen da berriro ere bizitzeko funtsezkoa dena; honela, mundu garaikidean, asko dira Jainko-egarriaren ezaugarriak, bizitzaren azken zentzuzkoak, sarri era inplizitu edota ezkorrean agertzen dienak. Eta basamortuan fedea duten pertsonak behar dira batez ere, bere bizitzarekin, Agindutako lurra daraman bidea ager dezaten, itxaropena bizirik iraunaraziz». Edonola ere, **deituak gaude pertsonapegarrik izatera, besteei edaten emateko**. Gurutze astun bihurtzen da batzuetan pegarra. Baina gurutzea izan zen, hain zuzen, Jauna —zulatuta— ur biziaren iturri modura eskaini zitzaigun tokia. **Ez dezagun utzi guri itxaropena lapurtzen!** (86).

Gaur, giza komunikazioaren sare eta tresnek egundoko garapena iritsi dutelarik, **elkarrekin bizitzearen mistika aurkitu eta ezagutarazteko erronka sentitzen dugu, nahasteko, topo egiteko, elkar besarkatzeko, elkarri laguntzeko erronka; pixkat kaotikoa izanagatik ere, egiazko senidetasun-esperientzia, jende andana solidario eta erromesaldi santu bihurtu daitekeen mairaldi horretan parte hartzeko erronka**. Honela, komunikazio aukera handiagoak, elkarren arteko topogite eta solidaritate aukera gehiago bihurtuko dira. Bide horri jarraitu ahal izango bagenio, hain ona izango litzateke, hain sendagarria, hain askatzailea, hain itxaropentsua! **Beste batzuekin elkartzeko norberagandik ateratzeak on egiten du**. Norberengan ixtea immanentziaren pozoin mingotsa probatzea da, eta egiten dugun aukera egoista bakoitzarekin gizadia galtzen aterako da (87).

Ebanjelizatzea Elizaren zeregina da. Baina ebanjelizatzearen subjektua erakunde organiko eta hierarkiko bat

• Moderatzaileak oraingoan eta aurreko batzarrean landutakoaren sintesia egin eta bialdu egingo deutso taldeari dagokion bikarioari eta talde arduradunari (talde ministeriala, pastoral arduraduna, zuzendaritza taldea...). Guztion parte hartzea eta landutakoaren barri izatea indartu nahi da horrela.

Itaunak

Aurreko batzarrean landutakoa gogoratuz:

1. Zerk emoten deust bakea, indarra, itxaropena, poza...?
2. Zerk sortzen deust, ostera, bildurra, larritasuna, urduritasuna, pesimismoa...?
3. Zeintzuk dira Jainkoaren deiak niretzat, gure taldearentzat, gure alkartearentzat eta gure Elizarentzat?
4. Zer ideia edo asmo biztu da niregan?
5. Badago askatasunez landu ezin dodan gairik? (susmoagaitik, bildurragaitik edo lotuegi egoteagaitik...)

EVANGELII GAUDIUM IDAZKITIK

Egia da, Jainkorik gabe eratu nahi duten edo bere kristau erroak hondatzen dituzten gizarteek duten egitasmoaren ondorioz, «basamortutze» **espiritual bat gertatu zela zenbait tokitan**. Han, «kristau giroa antzu bilakatzeko ari da, eta hondar bihurtzen den lur gainustiatu bezala ahitzen da». Beste herrialde batzuetan, kristautasunaren aurkako erresistentzia bortitzak, maite duten herrian bere fedea ia ezkutuan bizitzera daramatza kristauak. Beste basamortu-era mingarri bat da hau. **Nor bere familia edo lantokia ere izan daitezke fedea zaindu eta zabaltzen saiatu beharreko giro idor**. Baina «basamortu –hutsune– honen esperientziatik abiatuta topa dezakegu berriz, hain zuzen, sinestearen poza eta honek guretzat, gizon-emakumeontzat, duen berebiziko

Otoitza (*danon artean*)

Garrantzia dauana, Jauna, ez da...
Nik Zu bilatzea,
Handik eta hemendik Zuk ni bilatzen nozula baino;
nik zure izena deitzea,
Zuk nire izena zure eskuan idatzia dozula baino;
Nik zuri oihuka dei egitea,
zure oihua nire bihotzean sentitzea baino;
nik zuretzat asmo eta proiektu onak izatea,
Zuk ni eskutik eroatea baino;
nik Zu ulertzea,
Zuk ni ulertzen nozula autortzea baino;
nik zuri buruz jakituriaz berba egitea,
Zu nigan bizi zarala baino;
nire bihotzean Zu gordetzea,
ni Zuregan bizi izatea baino;
nik Zu bihotz eta indar guztiaz maitatzea,
Zuk ni bihotz eta indar guztiaz maitatzen nozula ikustea baino;
nik nire asmoak aurrera eroatea,
zure Espirituari nire barrua lantzen iztea baino.
Zelan ibili zure bila, Zuri deika eta zelan Zu maitatu...
lehenengo Zuk ez banozu bilatzen, deitzen eta maitatzen?
Esker onez egindako isiltasuna
izan dadila, Jauna, Zurekin bat egiteko
berbarik eta biderik zuzenena.

Edo:

Non-nahi zaude, bai,
zoramen argi,
non-nahi zaude
ager-zale, bideko gauzen
ostean erdi-
izkutatu zinen,
maitale.

Gurekin sarritan
oztopo edo
egin gurako zenuke,
hain zaude non-nahi
ta hain zaude argi,
gauzen pozaren
egile.

baino gehiago da, **Jainkoarengana erromes doan herri bat delako batez ere**. Hirutasunean errotutako misterio bat da benetan, baina herri erromes eta ebanjelizatzaile batean bere gauzatze historikoa duena, beharrezkoa den edonolako egituratze instituzionalen gainera dagoelarik. Jainkoaren ekimen aske eta doanekoan oinarri duen Eliza ulertzeko era honi pixka bat erreparatzea proposatzen dut (111).

Hartutako Bataioari esker, Jainkoaren Herriko kide bakoitza ikasle misiolari bihurtua izan da (ik. Mt 28,19). Bataiatu bakoitza, edozein izanik ere Elizan duen egitekoa edo fedean jantzia dagoen maila, eragile ebanjelizatzaile bat da, eta ez da egokia ebanjelizatzearen eskema bat irudikatzea, gai diren batzuk aurrera eramango dutena, gainontzeko fededunak horien egintzen hartzaile huts diren bitartean. **Ebanjelizatze berriak bataiatu guztien protagonismo berri bat izan behar du berekin**. Uste hau kristau bakoitzari egindako dei bihurtzen da, inork ez dezan geroko utzi ebanjelizatzearekin duen konpromisoa. Batek egiaz egin badu salbatzen duen Jainkoaren maitasunaren esperientzia, ez baitu behar prestaera aldi luzerik iragartzera joateko, ezin baitu egon ikastaro asko eta jarraibide luzeak hartu zain. Kristau oro da misiolaria Kristo Jesusengan Jainkoaren maitasuna aurkitu duen heinean; jada ez dugu esaten «ikasleak» eta «misiolariak» gairela, beti «ikasle misiolariak» gairela baizik (120).

Gure eginkizuna ez da promozio edo laguntzarako ekintzak edo programak antolatzea bakarrik; **Espirituak eragiten duena ez da gainezka egiten duen aktibismoa, bestearengan jarritako arreta eta ardura baizik, “norberarekin bat den bat bezala”**. (...) Pobrea, maita-

tua denean, “balio handikotzat hartua da”, eta horrek bereizten du pobreen aldeko benetako aukera beste edozein ideologiatatik, pobreak norbere interes pertsonal zein politikotarako erabiltzeko edozein asmotatik. **Bihotzeko benetako hurbiltasun horrek bakarrik egingen gaitu euroi askapenerako bidean egoki laguntzeko gai** (199).

Jaunaren zaurietatik tarte burutsu bat utziz kristau izateko tentazioa izan ohi dugu batzuetan. **Jesusek, ordea, giza miseria uki dezagun nahi du, lagun hurkoaren haragi minberatua uki dezagun**. Giza zurrunbiloen begitik urruti egon ahal izatea ematen diguten babesleku pertsonal nahiz komunitarioei uko egingo diegula espero du Jesusek, eta harremanetan jarriko gairela benetan lagun hurkoaren egoera zehatzarekin eta ikusiko dugula samurtasunaren indarra. Hori egitean, bizitza nahasi egingo zaigu era zoragarrian, eta herri izateko esperientzia sutsua biziko dugu, herri bateko kide izatearen esperientzia (270).

OTOITZERAKO PROPOSAMENA

Sarrera

Azterketa prozesuaren erdia bete dogu. Gure egoeraz jabetu gara eta horrek guregan sortzen dituen sentipenak eta asmoak landu ditugu. Ekarri dagigun orain guzti hori Jaunaren aurrera eta sentidu dagigun bere presentzia kontsolagarria.

Iratzeder olerkari handiaren berbak lagunduko deuskue otoitz giroan sartzen.